

ALDARE-LIBURUA

(eta III)

«Gizona» ez da noski sekulan «emakumezko». Askoz egokiago da beste era auetakoren bat erabiltzea: Gizakia, gizon-emakumeak, seme-alabak, senide edo aurrideak, edo neba-arrebak, aita-amak edo gurasoak.

«Orduen Liturgia» liburuan askotan eta askotan dagoanez «gizon, gizonak, gizoni», giza-kuntza bientzako adierazpenean, auxe zeazki aldaturik eta obeturik ematea eskatuko nuke «Aldare-liburua» datorrenerako.

6. Aditz-laburtzea dala-ta, bereizketa bat lenengo, gauzak argitzearren:

- a) Aditz-aditza danean, adibidez: ikusi, ekarri, sortu, sartu, adierazi, ibilli, erabilli, e.a., aditza laburturik ematea ongi dago ondorengo jokaldi auetan: agintezkoan, aalezkoan eta zertarakoan. Onela noski:
Etor adi... etor aiteke... etor adin...
Ekar ezak... ekar ezake... ekar dezagun...

Erabikera au ongi dago, lege autsi-eziña ez dalarik ere. Oituzko erabilkera ta oparo erabillia da Ipar-Euskalerrietan, gutxi xeago Gipuzkeraz eta... ia-ia beñere ez Bizkaieraz. Ala ere eman dezagun ontzat.

- b) Izena eta naiz izenlaguna aditz biurturik ditugu-

nean, bestela dira gauzak. Ona emen adibideak:

Gizon / gizonDU, ikara / ikaraTU, lagun / lagunDU, babes / babesTU, Eta, zuzen / zuzenDU, berriTU, sendoTU, zuriTU, aundi-TU, garbitu...

Onelakoetan beti ta beti laburturik ematea, geiegizkoa da, argitasunaren eta erraz ulertzearen kaltekoa. Aditza osorik ematea, beraz, argiagoa da, osoagoa, zalantzak eta ulertezinak uxatzeko biderik egokiena. Onela adibidez:

ZuzenDU ezazu, sendotu zaitzan, garbitu gaitzazu, ugaritu ezazu, berritu nazazu, sendotu nazakezu, ikaratu itzazu, gizondu dadilla...

7. ASKO itza sartzen dan guztian aditza batenean erabiltzea, geiegikeria da ta oker askoren iturri. Ona emen bereizketa bat laburki:

- a) Aditz-lagun danean, orduan lasai batenean: «Ardo asko edan du... Au da, ardotik naiz sagardotik e.a. asko edan dua-la adieraziz.

- b) Izen-lagun danean, —talde-izenen bat ezik, «jende asko ikusi dut» bezala—, aditza askorenean jarri bearrekoa da. Ona emen adibide garbiak:

—Lagun asko GERA esaten du euskaldun orok, beraz, ASKO ZERATE, ta era berean, lagun asko dira esan bear eta idatzi ere bai.

Eta gauza bera, zenbakiak erabiltzean eta ZENBAT galdera egitean:

—4 lagun GERA, beraz era berean, 4 lagun ZERATE, 4 lagun DIRA.

—ZENBAT senide GERAN? 4 senide GERA, 5 senide ZERATE, 5 gizon DIRA.

—ZENBAT lagun ZERATE? ZENBAT gizon DIRA?

Ainbeste mezemaillek egunoroz erabilli bear izango dugun liburua danez; eta oraindik ere areago, millaka «mezentzulek» egunoroz aditu bearra izango duten liburua, ongi baiño obeki zeaztuta ateratzeko eskatzea, ez da geiegizko eskaera. Orregatik, bada, zuzenketa auek egitea eskatzen diet orain agerian edo jendaurrean, leenago beraiei zuzenean eskatu nien arduradunei.

Zuzenketa auek egitez ere aintzat artuko dituzten uste osoan gelditzen naiz eta, laguntzarik bear ba'lute, dezakeguna emateko prest gauzkate.

GAZTAÑAGA'tar Jesus'ek